

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jesus Arrien Erkoreka

*Sukarrieta,
Bizkaia (1933)*

Aurkibidea



Biografia



Errigoitiko "Barixa" auzoko Bariatzen jaio zen. Gurasoak ere Errigoitikoak zituen. Ama bera umea zela hil zen eta zazpi neba-arrebak aitaren ondoan hazi ziren. Elizaldeko eskolan ibili ostean, 14 urtegaz seminaria joan zen. Arteako, Gasteizko eta Derioko seminarioetan egon zen 1959. urtean Kanalara (Sukarrieta) etorri arte. Ordudanik bertan egin du bizimodua, Kanala bertako eta Laidako (Ibarrangelu) ababe moduan. Tarteka Kortezubi eta Gautegiz-Arteagako parrokien ardura ere izan du.

Zintak

SUK-002

- **Proiektua:** Sukarrietako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2013-05-02
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

SUK-003

- **Proiektua:** Sukarrietako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2013-05-02
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

SUK-004

- **Proiektua:** Sukarrietako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2013-05-02
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Baserritik atara behar bizimodua

- **Erref:** SUK-002/003
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:07:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ama berak urte eta erdi zuela hil zen. Baserriko lana zen beraien bizimodua, eta soloak ondo landu behar ziren. Bera txikiena zen eta txikitako bere eginkizunak iturritik ura ekartzea, egurra txikitzea, behiak jagotea... zen.

Transkripzioa

Ama barik, eta hoixe, ba, baserriko lana: ganadue eta soloa ta... eta horrexegaz aurrera. Lehen ez zan egoten ez lantegirik ez zegaz urten be ez herritik eta, ba, hantxe. Soloak ondo landute, handik bizi biher zan. Ta txikitxuena. Txikitxuterik, ba, euki nebazen biher batzuk ya izentaute: egurre txikittu ta behiak jagon ta iturritik ure ekarri ta horrek geuza guztixek. Ta ez dekot txikitxerik kurtidu [ezaren] penarik bape, kurtidu arren, penarik bape ez dekot. Pozik. Ze lanak eiten dau ta horrek arduriak, kidesunak, eitten zaitu, ba, sendotu ta bizitzarako preparau, prestau. Holantxik.

2. 1959tik Kanalako abade

- **Erref:** SUK-002/004
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Hamalau urtegar seminaria joan zen eta 25 urtegar abadet. 1959ko Abuztuaren 28an heldu zen Kanalara, barikuz. Domeka hartan irten zuen lehen aldiz bertako aldarera. Herria maisu handi bat dela dio; begiak eta belarriak zabalik bizi behar omen da, irakasten barik ikasten. Orduko hartan Gauteziz-Arteagan hiru abade zeuden eta gero berak hartu zuen bertako ardura. Korteziubiko ardura ere izan du hiruzpalau urtetan. Hasieran batean Kanalako eta Laidako (Ibarrangelu) elizetako arduraduna baino ez zen izan.

Transkripzioa

- 14 urte gaz seminarixora joan, hogetabostegaz abadegintzako sakramentua ospatu eta hemen, ba, 53 urte, 59tik. Etorri nitzen abuztuen 28xen, San Agustin jai baten. Barikue zan ta domekan urten neban elizara, altarara. Ta hemen gauz, ikesten, irekasten eta, horixe, herrixegaz hartun-emonetan. Herrixe maixu handixe da; orduen, ba, bizi biher da beti begixek zabalik eta belarrixek zabalik eta irekasten barik ikesten [gehixauten].
- Etorri ziñenian, zu ziñen abade bakarra edo beste batzuk be egon zien lehenau?
- Ez, bakarra hamen ni. Artean hiru abade orduko denporatan! Ta oin harek, ba, hil zien ta gero, ba, neuk hartu neban Artia, Kortezubi be bai euki dot hiru-lau urtetan...
- Bai, ala?
- Bai. Laide, Kanala ta... Laide ta beti Kanala, horrexegaz hasi nintzen.

3. Laidako elizako abade

- **Erref:** SUK-002/006
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:09:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Laidako eliza Akordako parrokiako parte da, biak Ibarrangelu herrikoak. Hala ere, 1948tik Kanalatik zerbitzatzen da.

Transkripzioa

Laide da Akordako parrokiaren kapilla bat. Akordako parrokiare. Baia lehen han egon zan abade nagusi bet, Don Tomas, ta Kanalen egon zan Don Beterano Madrid, abade gaztie, ta motorra parrokiarek. Ta, orduen, enkarga otsen /enkargatzen/ hareri, ba, Laide. Ta, orduen, nahi ta izen juridikamentien Akordeko parrokiare, ba, Laide be zerbitzen da Kanaletik, mille bederatzirehun ta berrogeta zortzitik honantz. Bai. Ta, ba, han gaoz. Laide hasi, Kanale eta Artiara; [Kortezubi itxi], oin hartu dou Gerniketik... Ta hamen gauz ahaldantxu eiten; jentientzako, ba, sarri askotan aspergarri, baia tire.

4. Elizaldeko eskola eta Zallobenteko auzo-eskola

- **Erref:** SUK-002/008
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:12:06. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Baserrian jaio zen eta seme-alaba gazteena izan arren, umetatik aritu behar izan zen bertan lanean. Elizaldeko eskolara joan zen, nahiz eta Zallobentekoa hurrago eduki. Zallobenteko eskola auzo-eskola zen eta baserritarrek

ordaintzen zuten eta bertan ere parte izan arren, auzoko beste batzuei laguntzearren Elizaldekoa joaten ziren beraiek ere. Don Juan Redondo errioxarra izan zuten maisu.

Transkripzioa

- Bakotxen biherrak: nagusixek, ba, kodañiaz bedarrak ebai ta behixek eta makiñetan eta bestiek eta, ta ni txikixena, ba, horixen, egurtxue txikittu, ekarri su baztartzure, iturritik ure eta behixek jagon ta horrexek geuzek, iturri biherrak eta.

- Ta eskolara ta?

- Eskolara, ba, juaten gintzen gu Elizaldera, nahi eta Zallobente hurrau euki. Ze han zan, ba, eskolie, ba, auzo-eskolie zan Zallobentekoa. Ta, orduen, Diputaziñoagaz baia baserritarrak eurek parte hartute ordainketan. Eta hamen beste etxe bi-hiru dauz guregaz batera auzoan, ta harek ez zin izan parte hor eskolan, ta, orduen, harek jueten zien Elizaldera. Ta gu, lagun moduen, ba, Zallobentera juen ahal gendule, ba, jueten gintzezen behera. Ta han hasi nitzen Don Juan Redondogaz, erriojatar maisu bategaz, ta beragaz [urtendakoan] eskolatik, Bilbon egon nintzen seminarixo aurretik urtebetien ta seminarixuan, ta oin hamen Kanalen. Ikasketak hartzen da ahalduetxuegaz zerbait erakusten ta laguntzen jentieri, horixe da lehen biher doguna bakotxek eta.

5. Elizaldeko eskola

- **Erref:** SUK-002/010
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Elizaldeko eskolan ikasi zuen irakurtzen. Olgetako ez zuten pilotarik, baina bai trapu-pilotak. Bertako eskolan jaso zuten beraien lehen kultura, gero kultur etxe bihurtu den eraikin berean. Neskak Uria auzoko eskolara joaten ziren, Elizaldekoa mutilak baino ez.

6. Dotrina eta lehen jaunartzea

- **Erref:** SUK-002/011
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:16:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Dotrina don Juan Añibarro zeanuritarrek ematen zuten. Astelehenez izan ezik gainerako egunetan izaten zuten dotrina. Egunen batean abadea falta izanez gero, postu egiten zirela dio, jolasteko aukera izaten zuten-eta. Lehen jaunartzea goizeko zortzietako mezan hartu zuen. Etxera bueltatu, txokolatea hartu eta hamaiketako mezara bueltatu behar ziren. Txarolezko zapatak eta marinel arropak jantzita egin zuen jaunartzea. Gauza gutxirekin pozik bizi ziren.

Transkripzioa

Dotriñie Don Juan Añibarro Zeanuriko semiek emoten oskun dotriñie, astelehenetan izan ezik egun gehixenetan. Ta falta zanién, ba, poztu eitten gintzezan, ta bertan olgetan ibiltteko ta bestie. Baia han elizpién banku zuzen baten hantxe jarriten gintzezan ta, bueno, hantxe hartu genduzen lehenengo... hori, erlijiño gauzek ta bestie ta lehenengo jaunartzie ta. Goguen dekot lehenengo jaunartzie ta goizien zortziretako mezan. Ta guretik elizara egongo diez... egongo direz, ba, hoixe, kilometro bat eta erdi edo- Ta, ba, bueno, goizien gure jaune hartun, etxin txokolatetxue hartun, ta hamaiketako mezara atzera. Ta hoixe dekot... Zapata txarolakaz ta mariñel jantzinde ta holantxe. Ta gauza gitxigez, baia pozik bizi gintzezan gu txikitten lehen. Bai, gaurko... bai, esaten daben moduen, “lo poco gusta, lo mucho cansa” ta gu ez, gu ondo, gauze gitxigez ondo bizi gintzenzan.

7. "Txopinke"

- **Erref:** SUK-002/013
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:16:34. **Bukatu:** 00:17:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

"Txopinke" jolasa azaltzen du. Mutilak baino ez ziren aritzen, neskak beste auzo bateko eskolan egoten baitziren.

Transkripzioa

- Horixe, parte batetik batzuk ta beste batzuk [handitik] eta ipini puntu bat erdixen ta haixe puntura, hantxe ipini gauza bat ta haixe hartzen.
- Mutillek bakarrik edo...?
- Mutillek bakarrik, ze neskak behien egoten zin, [Urixen]. Neskak euki eben hor zortzi minuttuko bidie [Urittik] elizaldera, parrokiare. Bai. Ta horixe, hori izeten zan gure txiki denporie.

8. Maisu errepublikazalea zuten, herrian maitatua

- **Erref:** SUK-002/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Elizalde eskolan maisu bakarra ezagutu zuen Jesusek: don Juan Redondo errioxarra. Eskolara sartu aurretik "¡Viva España!" esan behar zuten arren, ez zieten gogor egiten sasoi hartako abestiak ikasteko. Errepublikazalea zen, lehenagoko postu batetik hara bidalitakoa. Abadeari eta maisuari biei, "don" esaten zien.

9. Seminaria joateko erabakia

- **Erref:** SUK-002/018
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:22:47. **Bukatu:** 00:25:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Herrian zuten abadea eredutzat hartuta erabaki zuten Errigoitiko hainbat mutikok seminaria joatea. Abadea, maisua eta medikua ziren garai hartan askorentzat eredu. Askok erdibidean uzten zuten hasitakoa.

Transkripzioa

- Guk eukin gendun, horixe, hori, ba, gure abade zanaren ejenplue ta beste ta... berak, ba, gure badu izen ta... ta, orduen, ba, juan ziren nire aurretik hiru seminarixora, ta atzetik juan gintzezan beste hiru. Bai. Ta, bueno, hori, ba, abadien orduen pisu handixe eukin ta beran... abadie, geurko irudixe barik beste irudi batera bizi zen herrixen. Abadie ta, esaten dan moduen, abadie, maisue ta medikue edo, horrek ei zien... Gurien, ba, nahikoa zan horrekaz lar hartun-emon barik, ba, bera ta beran katekesistxue ta beran kantuek ta beste ta lan ta lan ta fin-fin ta beste ta... Abade batek beti deko, orduko denporatan gehixau. Gaur ez. Gaur abadie beste egoera baten ikusixek gara. Ta, barriz, dekouzen urtiegaz, ba, bueno, ya gauz ezkiñen, ezkiñen, sakada txikitxuATEGAZ zulora juateko moduen.

- Ta lehen be seminarixoko bidie bai izeten zan ikesten jarraituteko bide bakarrenetarikoa, ez? baserrittarrantzat sikan.

- Bueno, hori halan esaten da, baia gurien ez, nik ez naben euki pentsamentu hori. Bueno, ba, abade? ba, bueno, ba, hasi. Ta gero beti dekozu atzera beitateko denporie, sasioie, be. Ta urteten dabe askoke ta askok. Beste batzuk bidaldu be eitten ebezan. Zoritxarrez, urte haretan, ba, bai egon zan lez abundantzia handixe bokaziñotan ta bestietan ta, botaten ebezan, ba, laburrek zielako be bai, gero hauk politika munduagaitik be bai... Eta, ba, han be joan gintzezan kurtidute. Gero, ba, hori pentsamentu horregaz, ba, aurrera in gendun. Ta gero, ba, hemen gauz herri eder txiki polit baten, ta mundue zabalik dauela beste lekuetara be, hamen albo-herrixetan ta danetan, ba, zeozer eitten dou ta ederto baten.

10. Kanala auzoa bi udalerritakon auzoa

- **Erref:** SUK-002/020
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:29:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak

Laburpena:

Kanala auzoa bi udalerriren artean dago banatuta: Sukarrieta eta Gautegiz-Arteaga. Demokraziaren sehaska auzo hau dela dio umorez; bakoitzak nahi duen herrikoa izan ahal duelako. Izan ere, badaude bi etxebizitza dituzten pare bat etxe, etxebizitza bakoitza udalerrri desberdinetakoak direnak.

11. Arteako seminarioko egunerokoa

- **Erref:** SUK-002/022
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:30:35. **Bukatu:** 00:31:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Arteako seminarioan zelan bizi ziren azaltzen du.

12. Seminariokoa, pertsona gogortzeko bizitza

- **Erref:** SUK-002/023
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:31:45. **Bukatu:** 00:32:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Arteako seminariotik Gasteizkora joan zirenean, han latinez egin behar zuten, baita azterketak ere. Latina zen zuten irakasgairik garrantzitsuena. Kultura sendo, zabal eta ona zuten. Seminarioak bizi izaten eta pentsatzen laguntzen du. Pertsona zaildu, gogortu, egiten du seminarioak. Batxilerra, filosofia eta teologia ikasten zituzten.

13. Gasteizko seminarioan maisu entzutetsuak

- **Erref:** SUK-002/025
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:39:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

<p>Gasteizko seminarioko maisua entzute handikoak ziren: Urbano Gil, Andres Ibañeta, Zapiain, Pepe Manzana, Cirarda, Sukia zaldibiarra, Larrea gotzaia... Gerora Derion izan zituen maisu batzuk ere aipatzen ditu.</p>

14. Seminarioan euskara gutxi

- **Erref:** SUK-002/029
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:43:10. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Gasteizko seminarioan bizkaitarrek beraien artean erdaraz egiten zuten, gipuzkoarren artean euskara gehiago entzuten zen. Artean, oster, zer edo zer bai egiten zuten. Derion eguenero (ostegunero) zuten euskarazko klase bat. Beste abade batzuk gipuzkoarrekin landu zuten gehiago euskara.</p>

15. Abadeek herrietan euskara lantzeko ahalegina

- **Erref:** SUK-002/031
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:46:15. **Bukatu:** 00:47:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioan euskarak ez zuen indarririk, baina gero herrietan Elizak indar asko izan du eta lan asko egin du, euskarazko dotrina eta abestiak landuz.

16. Mezak latinez eta lepoz ematetik, aurrez eta euskaraz ematera

- **Erref:** SUK-002/035
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:49:11. **Bukatu:** 00:52:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Bera abadetu eta gero mezak latinez izaten ziren eta jendeari atzea ematen zion abadeak. Sermoiak-eta, euskaraz izaten ziren. Latinez ziren mezak eliztarrek ez zituzten ulertzen. Erromari urte asko kostatu zitzaion egoera edo premia berriei ohartzeko. Frantzisko I. Aita Santua pozez hartu dute askok.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com